GECASA-RENTZAT TRAKZIO OSOKO IBILGAILU ELEKTRIKO HIBRIDO ENTXUFAGARRIA (JEEP COMPASS 1.3 PHEV 240CV 4X4 TRAILHAWK) RENTING MODALITATEAN HORNITZEKO KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Donostia, 2023ko ekainak 14

GECASA-RENTZAT TRAKZIO OSOKO IBILGAILU ELEKTRIKO HIBRIDO ENTXUFAGARRIA (JEEP COMPASS 1.3 PHEV 240CV 4X4 TRAILHAWK) RENTING MODALITATEAN HORNITZEKO KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Aurkibidea **Orria**

1. Sarrera 1
2. Kontratuaren xedea 1
3. Horniduraren deskribapena 1
4. Horniduraren baldintzak 2
   4.1.-Berezitasun teknikoak 2
   4.2.- Mantentzea 2
   4.3.-Asegurua 3
   4.4.-Pneumatikoak 3
   4.5.- Ordezko ibilgailua 4
   4.6.- Ibilgailua entregatzeko eguna 4

GECASA-RENTZAT TRAKZIO OSOKO IBILGAILU ELEKTRIKO HIBRIDO ENTXUFAGARRIA (JEEP COMPASS 1.3 PHEV 240CV 4X4 TRAILHAWK) RENTING MODALITATEAN HORNITZEKO KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. Sarrera

Gestión de Centrales del Añarbe, SA (aurrerantzean GECASA) honela osatuta dagoen sozietatea da: Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SAk (aurrerantzean AUSA), %70ean, eta Energiaren Euskal Erakundeak (aurrerantzean EEE), %30ean. Sozietatearen estatutuen arabera, honen xedea da, besteak beste: zentral hidroelektriko txikiak, kogenerazio plantak, biomasaren energia, eguzki-energia eta beste energia berriztagarriak aprobetxatzeko plantak sustatu, eraiki, birmoldatu eta hornitzea, nola energia elektrikoa hala termikoa edo mekanikoa ekoizteko. Kontsumo propiorako edo sozietateak egokitzat jotzen dituen pertsona edo entitateei saltzeko, Zuzenbideak onartzen dituen edozein modu erabiliz.

Sozietatearen xedea ikusirik, bere langileek ibilgailu elektriko entxufagarri bat (BEV edo PHEV) erabiltzea dela koherenteena dirudi, atmosfera kutsatzailerik isuriko ez duena edo, hori ezin bada, haiek ahal eta gutxien izan daitezela, CO_2 isurketak murrizten laguntzeko xedearekin.

Aldi berean, GECASAren plantillaren beharretara egokia izan dadin, ibilgailuak trakzio osoa izan beharko du eta horretaz gain PHEV (ibilgailu elektriko hibrido entxufagarria) izan beharko du, 45 km-ko edo gehiagoko autonomiarekin modu elektriko osoan, eta lurzoruaren altuera librea 190 mm-koa edo handiagoa izan beharko du. Eskakizun horiek eta kontratuaren aurrekontua kontuan hartuta, Jeep Compass 1.3 PHEV 240CV 4x4 Trailhawk ibilgailua hautatu dugu horniduraren xede gisa, eta lehentasuna ematen diogu lur orotako ibilgailu gisa duen ezaugarriari.

2011. urteaz geroztik, erabiltzen den ibilgailu elektrikoa 4 urterako *renting* modalitatean izaten da. Egungo *renting* kontratua 2019ko urriaren hasieran amaitzen dela ikusirik, aurrerantzean kontratuko den ibilgailuaren ezaugarri teknikoak zehazteko garaia da.

2. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea da, GECASArentzat ibilgailu bat hornitzea, *renting* modalitatean, eta horniduraren deskripzioak beteko dituena. Ibilgailua errepide arruntetatik zein mendiko pista perimetraletatik gidatuko da (Goizueta udalerria, 31754 PK).

3. Horniduraren deskribapena

Lizitatzaileak aurkeztuko du ibilgailu bat *renting* modalitatean (24 hilabeterako) eta ondorengo kontzeptuak bete beharko ditu:

- ✓ Ibilgailuaren alokairua
- ✓ Matrikulazio zerga eta tasak
- ✓ Zerbitzuak:
    - Ibilgailuaren gaineko zergak
    - Mantentzea eta konponketak
    - Gurpil-aldaketa
    - Arrisku guztietarako asegurua frankiziarik gabe
    - Hirugarrenen asegurua
    - Errepidean laguntza: 24 ordu, 365 egunetan
    - Istripuen kudeaketa eta fakturen ordainketa
    - Ibilgailuaren eroste eta mantentzea erabiltzaile izango den GECASAko langilearen lanpostutik gertuen dagoen kontzesionarioan egingo da (Donostiako Errotaburu 1-6.)

Lizitatzaileak kontuan izango du ibilgailuak 24 hilabetetan gehienez 20.000 km egingo dituela.

4. Horniduraren baldintzak

Hona hemen xehetasunak:

4.1.-Berezitasun teknikoak

- CO_2 (NEDC) emisio konbinatuak: 46 gr/km
- Erregai-kontsumoa (NEDC) ziklo misto haztatua: 2,0 l/100 km
- Gidatze elektrikoaren autonomia: 47 km
- Zilindro kopurua: 4
- Zilindro-bolumena: 1.332 cm^3
- Pisu hutsa: 1.935 kg
- Atzeko motor elektrikoa: gehiengo potentzia, 44 kW
- Trakzio-bateria: ion Litio, 400 V eta energia totala, 11,4 kWh.
- Konbustio-motorraren erregaia: berun gabeko gasolina
- Transmisioa: lau gurpiletan, elektronikoki kontrolatua
- Kanbio-kutxa: automatikoa, balaztatze birsortzailerako aukerarekin.
- Kolore zurian emango da.
- Altuera librea: 213 mm

4.2.- Mantentzea

Atal honetan jasotzen da, lizitazio honen xede den ibilgailuaren mantentzea kontratua indarrean dagoen bitartean.

Esleipendun gertatuko den enpresak ordainduko ditu: mantentzearen kudeaketa eta kostua; konponketak eta pieza aldaketak; olio, lubrifikatzailea edo likido aldaketak; ordezko piezak; eskulana; txapa eta pintura; IAZ aurreko lanak eta IAZ-a pasatzea, bere proposamen ekonomikoaren arabera.

Eragiketa horiek guztiak ibilgailuaren fabrikatzailearen jarraibideen arabera egingo dira.

Orokorrean, hona hemen enpresa esleipendunaren zereginak:

- ✓ Ibilgailuaren akats teknikoak edo erabilerak eragindakoak konpontzea, dena dela elementu edo osagai mekanikoa (piezak eta eskulana).
- ✓ Matxuren konponketa (piezak eta eskulana).
- ✓ Fabrikatzaileak adierazitako aldizkako ikuskapenak.
- ✓ Istripuaren ondorioz ibilgailuak izan ditzaken kalteak konpontzea, aseguru-konpainiarekin kontratatutako polizaren estaldura baldintzen arabera.

Aurreko paragrafoan deskribatu diren lan guzti horiek, ibilgailuaren fabrikatzailearen sare ofizialeko tailerretan egingo dira edo esleipendunak izendatutako tailer espezializatuetan, beti ere, GECASAko langilearen lanpostutik ahalik eta gertuen.
Aldatu beharreko ordezko piezak markaren jatorrizkoak izango dira.

Ibilgailuaren funtzionamendurako behar duen erregaiaren kostua kanpo gelditzen da.

4.3.-Asegurua

Ibilgailuak arrisku guztietarako aseguru-poliza bat izango du, frankiziarik gabe, Europar Batasuneko herrialde guztietarako balio duena, eta gutxienez ondoren adierazten diren estaldurak izango ditu:

- ✓ Derrigorrezko erantzukizun zibila
- ✓ Borondatezko erantzukizun zibila. Gutxienez 50.000.000 €.
- ✓ Ibilgailuak eta honen osagaiak jasandako kalteak.
- ✓ Kolpeak eragindako kalteak.
- ✓ Gidaria eta bidaiariak. Defentsa eta kalteen erreklamazioa.
- ✓ Kristalen haustea.
- ✓ Laguntza errepidean, 24 ordu/365 egunetan.
- ✓ Isunen kudeaketa.

4.4.-Pneumatikoak

Kontratuak irauten duen bitartean 8 pneumatiko aldatzea ezartzen da. Gutxienez 4 estazio motakoak izango dira, lehen markakoak eta edozein baldintza klimatikotan gidatzeko berme osoa ematen dutenak, bai errepide arruntean, bai errepide arruntetatik kanpoko mendi-pista perimetralean. Baita neguan ere.

Pneumatikoak orekatzea eta lerrokatzea ere sartuko da. Pneumatiko-aldaketak fabrikatzailearen sare ofizialeko tailerretan edo esleipendunak berak izendatutako tailer espezializatuetan egingo dira, GECASAren erabiltzailearen lantokitik ahalik eta hurbilen.

4.5.- Ordezko ibilgailua

Agiri honen xede den ibilgailua erabilgarri ez badago matxura edo mantentze-lanengatik, esleipendunak ordezko ibilgailu bat emango du. Esleipendunak, aldi baterako eta mugarik gabe, C segmentuko ordezko ibilgailu bat hornituko du, dagoeneko matrikulatuta eta zerbitzuan dagoena, kostu gehigarririk gabe, harik eta agiri honetan zehaztutako ibilgailua berriz ere eskuratu arte. Aseguruak eta mantentze-lanak barne hartuko ditu.

4.6.- Ibilgailua entregatzeko eguna

Ibilgailua 2023ko azaroaren 22a baino lehen entregatuko da. Fabrikatzailearen hornidura-arazoak direla-eta ezinezkoa bada, esleipendunak C segmentuko ordezko ibilgailu bat eman beharko du aldi baterako, dagoeneko matrikulatuta eta zerbitzuan dagoena (aseguruak eta mantentze-lanak barne), agiri honetan zehaztutakoa iristen den bitartean.